

TEKNOLOGIA

Azpiegituren interseksionalitatea



DIANA FRANCO EGUREN

Mastodon.eus sarearen erabiltzaile batek “*AI decomputing and the Interregnum*” testua partekatu du, Dan McQuillan-ek idatzia. Oso iradokitzailea suertatu zait. *Interregnum* hitzarekin adierazi nahi da zaharra dena hil dela, baina berria jaio ezinean dabilela: “AAren jabeek AA etorkizuna dela sinetsarazi nahi digute, eta etorkizun horren ezaugarri izango direla produktibitate mugagabea eta gaixotasunen amaiera. Hala ere, interakziorako eta adimena simulatzeko izugarritzko gaitasuna izan arren, teknologia horiek etengabe uzten dute agerian ez dutela mundua ulertzen, eta ez dutela sen onik. Utopia teknologikoez berbetan aritu beharrean, baliagarriagoa litzaiguke AAren inguruan gertatzen ari dena arretaz begiratzea, ziurgabetasun garai hauetan botere hegemonikoek hartuko duten norabideak zelan eragin gaitzakeen ulertzeko” (Gramsci).

Gizarte esku-hartze eremuan, dio, gizakioi loturiko ezaugarri ezberdinak (generoa, klasea, maila kulturala, etnia, adina, sexu-orientazioa...) nahasten dira eta sortzen dituzte desberdintasun bakanak eta konplexuak, eta esku-hartzeak egin behar dira egoerak eragiten dituzten aldagai ezberdinak kontuan hartuta, eragile ezberdinekin elkarlanean.

McQuillan jaunaren testuak AAren azpiegiturei lotuta ere darabil interseksionalitate hitza, eta azpiegitura horiei loturiko zibernetika guztiak arazo sozial gainjarriak sortzen dituen (kutsadura, bazterkeria, prekaritatea...), arazo horiei guztiei modu interseksionalean aurre egin behar diegula dio, eragile ezberdinak elkarlanean.

Ohartarazten du subiranotasun teknologikoaren estrategiek, berez, ez dutela gaitasunik azpiegituren gaitasun kapitalista, ustiatzaile, arrazista eta patriarkala eragotzeko. Gure gizarteetan, horiei aurre egiteko, alegia teknofaxismoari aurre egiteko, deskonputazioaren estrategia proposatzen du. Ideia ez da digitalitatea alde batera uztea, baizik eta dugun digitalitate hegemonikoa borrokatzeko estrategia multzoa uztartzea: desazkundea, desautomatizazioa eta bizikidetzeta. ●

NAZIOARTEA

"Ni ez naiz hilko, hil egingo naute"

ANDONI LUBAKI / CC BY ND NC

Elkarriketatu ditudanak, itzultzaileak, nire segurtasuna bermatu duten boluntarioak... guztiakin oroitzen naiz. Asko lagun bilakatzen dira. Halere, nazioarteko prentsarako horren beharrezkoak diren pertsona horiek gehienetan, beti ez esatearren, itzalpean geratzen dira. Egia da albisteetan ez dagoela toki handirik metakazetaritzaz aritzeko, hau da; irakurleak aurrean duen artikulua nola egin den azaltzeko. Kazetari askok ez dute publiko egiten hango kazetari bat kontratatu dutela. Ausardiaz beteta agertzen dira, beti nora joan jakin eta hango hizkuntza hitz egingo balute bezala. Like-ak nagusi. Kalitatezko kazetaritza askotan falta da, baita metakazetaritza garbi eta zintzoa ere. *Fixerraren* (ondoan duzun itzultzaile edo hango kazetariari ingelesez *fixer* deitu ohi zaio) izena ere agertu beharko litzateke argazkiak eta artikulua sinatzerakoan. Beti talde-lana izan ohi delako kazetaritza. Ezezkoa dioenak gezurra darabil.

Ukrainan bizi zen Viktor letoniarrekin Armeniara joandakoa naiz. Saharan errefuxiatu den Ahmed Salem-ekin Mauritaniara egin nuen bidaia. Hassana nire etxean bizi izandakoa da. Zagros kurduarekin Signal bidez solastu naiz. Libanon ere badituz horrelakoak.

Argazkian lehenbizi agertzen dena Hakim duze, Hezbollahko liderra zen Hassan Nasrallahen funeralean eza-

gutu nuen. Estadiora sartu baina lehenago zeremonia txiki bat egin zioten bere batailoikoek. Barruan, estadioa gainezka zegoenean, kazetariok ezin ginen aske mugitu segurtasuna zela eta. Berak lagundu zidan argazkiak ateratzen, pribilegiatua izan nintzen berari esker. Telefonoz jardun genuen hila-bete batzuetan, baina ezin zidan ezer esan. Ezin gatazka nola zihoan aipatu ere egin. “Segurtasunagatik Andoni, barkatu”. Beste gauza asko aipatzen zizkidan, jendea nola zegoen, kontaktu batzuk pasa edo bilatu. *Fixer* ona izan zen urrunean Hakim, beti laguntzeko prest, ordainetan ezer eskatu gabe. Elkar ezagutu genuen egunean ordu pare bat egon ginen bakarrik, baina oso jantzia zen, ingelesez ere bazekien eta titular mamitsu batzuk eman zizkidan. Koadernoan apuntatuta dudan azkena da “Ni ez naiz hilko, hil egingo naute”.

Bada apirilaren 17an hegoaldean hil zuten israeldarrek drone batekin. Bere anaiak eman zidan albiste tristea.

Koadernoaren behealdean, “ni ez naiz hilko, hil egingo naute” esaldia- ren ondoren zera idatzi nuen galdetu berritan: “Hilezkorra izateko hil egin behar al zaituzte orduan?”, eta bere erantzuna “noski”. Jada hilezkorra da eta nik ezin izango diot sekula eskertu nire artikuluetatik (niregatik eta nire irakurleengatik) egin duena. Metakazetaritza tristea gaurkoa. ●

